

I ERANSKINA

HAUTAPEN PROZESUAN ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA

Izen-deiturak:			
NANa edo agiri baliokidea:		Jaioteguna:	
Jaioterria (herria, probintzia, herrialdea):		Nazionalitatea:	
Helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta kodea, herria):			
Posta elektronikoko helbidea:			
Telefonoa:			

AZALTZEN DUT:

- Betetzen ditudala deialdi honetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak, ezarritako denboran eta moduan: deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, Igantziko Udalean, zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu huts bat, eta izangaien zerrenda bat osatzeko.
- Erantsi ditudala deialdian parte hartzeko eskatutako dokumentazioaren kopiak.
 - Nortasun agiri nazionala.
 - Eskatzen diren ikasketen tituluak.
 - Merezimenduak, lehiaketaldirako.
- Deialdian eskatutako euskararen ezagutza frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):
- Eskabide honi gehitzen diot ziurtagiri baten kopia bat, agertzen duena badudala deialdian eskatutako euskararen ezagutza.
- Eskatzen dut egitea deialdi honetan eskatutako euskararen ezagutza maila frogatzeko proba.
- Aldi baterako kontratu baterako deitzen banaute, lanaldi partzialeko kontratu bat ere onartuko nuke.
- Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.
- Ez dudala indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.
- Ez naizela diziplina espedientearen bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- Desgaitasuna dudala eta, hortaz, behar ditudan egokitzapenak eskatzen ditudala, haietarako arrazoiak adierazita (beste orri batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).
- Aurkeztu dudala minusbalotasuna dudala frogatzen duen agiria, erakunde eskudun batek emana.

Horrenbestez, **ESKATZEN DUT** onar nazatela aipatutako hautapen prozesuan.

..... (e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n

(Sinadura)

Datuen babesa. Bete beharrez 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak soilik erabiliko direla hautapen prozesuan Udalak dituen eskumenak erabiltzeko, eta batuko zaizkiela Udalaren edo entitatearen datu basea osatzen duten fitxategiei. Erabiltzen ahalko dituzu fitxategietan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko, eramateko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, Udaleko bulegora zuzendurik (Karrika Nagusia 5, 31790 Igantzi; www.igantzi.eus).